

Lan  Hitz

2011ko deialdia
Azalpenak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

2011ko deialdia

Entitate pribatuek Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten lantokietan 2011n euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak (Lanhitz).

AURKIBIDEA

- 1 **Datuak**
- 2 **Jarduerak eta epeak**
- 3 **Berrikuntzak**
- 4 **Mugak eta tarifak**
- 5 **Gogoan izatekoak**

Diru-kopuruaren bilakaera (2004-2011)

	Partida	Aldea aurreko deialdiarekiko	Aldea aurreko urtearekiko %
2004	961.619 €	472.798,36 €	+ 96,72
2005	1.118.522 €	156.903 €	+ 16,32
2006	1.825.000 €	706.478 €	+ 63,16
2007	2.300.000 €	475.000 €	+ 26,03
2008	2.690.000 €	390.000 €	+ 16,96
2009	2.710.000 €	20.000 €	+ 0,74
2010	2.400.000 €	-310.000 €	-%11,4
2011	2.400.000 €	0	0

2010eko deialdian parte hartu duten entitateak : 171

- 162 entitateri esleitu zaie diru-laguntza (hauetako batek uko egin dio laguntzari)
- 2 entitatek atzera egin zuten eskabidean
- 7 entitate diru-laguntzarik gabe gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik
- 2 entitatek esleitutakoaren zati bat itzuli behar izan dute justifikazioaren ondoren

DIRU-BALIABIDEAK

Hasierako partida: 2.200.000 €

200.000 € gehiago irailaren 23ko Ebazpenaren bidez

Diseinurako, kudeaketa-planerako eta Bikain ziurtagiria
2009an egiaztatu zutenentzat

Behin-behineko esleipena: 2.400.000 €


36.000 € Bikain 2009an lortu zutenentzat

29.019,35 € diseinurako


2.334.980,65 € kudeaketa-planerako

Behin betiko esleipena : 2.378.828,24 €


Sektorearen arabera



Lurraldeka



Enpresen tamainaren arabera



2 JARDUERAK ETA EPEAK (2011)

- ❑ Eskabidea aurkezteko **hilabeteko epea** egongo da (**ekainaren 10era arte**).
- ❑ A eranskinean **adierazi behar da zein jardueratarako** eskatzen den:
 - 2011ko kudeaketa-plana garatzeko.
 - Lehen erabilera-planaren diseinurako eta 2011ko kudeaketa-plana garatzeko.
- ❑ **Diseinua bakarrik ez**, kudeaketa-plana ere aurkeztu behar da.
- ❑ Lehenago **diru-laguntzarik jaso bada**, diseinurako edo kudeaketa-planerako, ezin izango da diseinua diruz lagundu.
- ❑ Planak bete beharrekoak 9. eta 10. artikuluetan adierazita (iaztik aldaketarik ez).

- Onuradunak pertsona juridikoak ez ezik **persona fisikoak** ere izan daitezke.

Deialdi honetatik **baztertuko direnak**:

- a. Kapital sozial osoaren erdia baino gehiago publikoa duten entitateak.
- b. **Euskalduntzen edo euskara-planen aholkularitza-lanetan nagusiki jarduten dutenak.**

Administrazio honetako **Erregistroan** dauden **fundazioen, kooperatiben eta elkarten kasuan**, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak **ofizioz** egiaztatuko du informazioa, horretarako agiririk aurkeztu gabe.

Berrikuntza eta Web 2.0 egitasmoen kasuan, **arazketa** egingo da. Kontzeptu horretan sarbiderik ez dutenak ez dira onartuko aurrekontuan edo sarbidea badute beste atal batean horretan gehituko da. Gainera, puntuazioari begira **bi kontzeptu desberdin** izango dira; bakoitzean bost puntu gehienez lor daitezke.

Balorazio-irizpide batzuk aldatu egin dira. Gainera, Aginduan zehaztuta dator **puntuen banaketa** zeren arabera egingo den.

Adibidez:

Auto-finantzazioa: 10 puntu gehienez.

- Finantzazio-maila propioa % 41etik % 50era bitartekoa bada, **5** puntu.
- Finantzazio-maila propioa % 51tik % 65era bitartekoa bada, **8** puntu.
- Finantzazio-maila propioa % 65etik gorakoa bada, **10** puntu.

c) Entitateak aurkeztutako **adierazle-sistema:** 10 puntu.

- HPSren adierazle-sorta edo entitatearenak beteta: **10** puntu.
- Adierazlerik ez da aurkeztu: **0** puntu.

Diru-laguntzen mugak:

Diseinurako

40- >60	5.000 €
60- >75	8.000 €
75- 100	10.000 €

Kudeaketarako

40- >60	25.000 €
60- >70	40.000 €
70- >80	45.000 €
80- 100	50.000 €

2010ean BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu duten entitate eskatzaileei diru-kopuru gehigarria emango zaie, baldin eta deialdi honetako baldintzak betetzen badituzte eta diru-laguntza eskuratzeko lortu beharreko gutxieneko puntuak lortzen badituzte:

Ziurtagiriaren maila

Oinarrizko maila
Maila ertaina
Goi-maila

Diru-kopuru gehigarria

1.000 €
3.000 €
5.000 €

Tarifak eta mugak eguneratu egin dira:

- Itzulpenetarako tarifa: **0,0774 euro** hitzeko.
- Trebakuntza orokorrerako tarifa: **5 euro** ikasle-orduko.
- Bestelako gastuetarako muga: **10.000 euro**.

Zuriketa:

2009an eta 2010ean bezala **justifikazio erraztua** erabiliko da, baina **ohiko moduan justifikatzeko modua** ere egongo da. C eranskinean aukeratu ahalko da justifikazio era.

MUGAK ETA TARIFAK

KONTZEPTUA	MUGA	TARIFA
Itzulpena	12.000 € Aurrekontu osoarekiko %50	0,0774 €/ hitzeko
Aldi bereko itzulpena	2.000 €	Tarifa ofizialak (IZO)
Hizkuntza-trebakuntza	-	5 € ikasle/orduko
Laneko berariazko trebakuntza euskaraz	-	-
Softwarea	15.000 €	Balorazio teknikoa
Berrikuntza eta Web 2.0	-	Balorazio teknikoa
Jarraipena, ebaluazioa, inplementazioa eta egokitzapena	-	Bilera-kopuruaren eta batzordekideen arabera egingo da. Koordinatzailearen dedikazioa
Bestelakoak	10.000 € Aurrekontu osoarekiko %20	Balorazio teknikoa

Balorazioaren arabera (diseinua)

Puntuak	Diseinurako diru-laguntzen mugak
40 - 60	5.000 €
61 - 75	8.000 €
76 - 100	10.000 €

Balorazioaren arabera (kudeaketa plana)

Puntuak	2011ko KPrako diru-laguntzen mugak
40 - 60	25.000 €
61 - 70	40.000 €
71 - 80	45.000 €
81 - 100	50.000 €

MUGA OROKORRAK

- ▶ Esleitu beharreko diru-laguntza 300 eurotik beherakoa bada, ez da esleituko.
- ▶ Diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, 40 puntu lortu behar dira.
- ▶ Bikain ziurtagiria izateagatik diru-kopuru gehigarria jaso ahal izateko, diru-laguntza lortzeko beharrezkoa den gutxieneko puntuazioa lortu behar da.
- ▶ Guztira, gehienez, 50.000 euroko diru-laguntza lor daiteke, kudeaketa-planerako bakarrik eskatuta nahiz diseinurako eta kudeaketa-planerako eskatuta. Bikainengatik jasotako kopurua gehitu egingo zaio lortutako diru-laguntzari.

1. Sinadura behar duten **eranskinak** (eskabide-orria, aurrekontua, dokumentazioaren ordezeko aitortpena...) **paperean aurkeztu** behar dira, **lege-ordezkariak sinatuta eta enpresaren zigiluarekin**.
2. Eskabidea postaz bidaliz gero, gutunazala zabalik eraman postetxera, postariak eskabide-orrian bertan zigilua jar dezan.
3. Aurrekontuan gastuek eta diru-sarrerek bat etorri behar dute. Zentimoak ere aintzat hartu.
4. Bestelako diru-laguntza publikorik eskatu ez bada, markatu zinpeko aitortpena. Eskatu bada, berriz, ez.
5. Harremanetarako emandako **daturik** (helbide elektronikoa, telefono zenbakia, helbidea, koordinatzailea, teknikaria...) **aldatuz gero, jakinarazi, mesedez, zuekin harremanetan jarri ahal izateko**.



Lan  Hitz

ESKERRIK ASKO

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako
Zuzendaritza

Tel.: 945 018105 / 15

e-posta: lanhitz@ej-gv.es

www.euskara.euskadi.net/lanhitz